

Zintzotasunetik eta gogoetatik abiatuta, Iñaki Cerrajería (Gasteiz, 1957) pinturan oinarritutako lan handia garatu du. Laurogeiko urteetan figurazio narratiboa landu izan zuen, halako ukitu ironikoa zuena; laurogeita hamarreko urteetan sinbolismoa jorratu zuen, edukiaz gabetuta ordea, eta ondoren erreferentzietatik aske dagoen abstrakziorantz eboluzionatu zuen, plastikaren arloko gaiekiko kezka emaitza. 1976 eta 1982 urte bitartean Arte Ederretako ikasketak egin zituen Sevilla eta Bilboko Fakultateetan, eta 1980az geroztik pinturan ez ezik ilustratzaile grafiko gisa ere ari da lanean, zenbait hedabidetan eguneroko zerrendak argitaratuz eta bere trazu arina eta umore sen originala erakutsiz. Gainera, laurogeiko hamarkadaren hasieran bere aurreneko erakusketak egin zituen: Arteder'81ean eta Windsor galerian (1985), zaldi serieak edo beste artista batzuen azterlanei eskainitakoak aurkeztuz.

1990ean lehen aldiz jarri zuen bere lana ikusgai Gasteizko Trayecto galerian, eta harrezkero erregulartasunez egin ohi ditu bertan erakusketak. 1991n Tenante seriea aurkeztu zuen Donostiako San Telmo Museoa. Serie horretan errepikatu egiten ditu motiboak -animaliak, arrainak edo zentauroak, besteren artean- trepa antzeko batzuk eratuz, tradizioari jarraituz artisauek erretauletak atetiletan edo kartagintzako maisuek karta-sorten dekorazioan erabilitako moduan. Cerrajería modulu edo unitate sistema bat erabiltzen hasia zen ordurako aurkezpenetan, pinturaren espazioa zabaldu ahal izateko, eta zenbaitetan kabinetean antzera, azalerak bananduz eta formatuak errepikatuz, berak dioenez “iragankortasunaren eta memoriaren seinale” direnak.

1993az geroztik, Trayecto galerian egindako Señuelo erakusketarekin, gogoeta prozesu sakonagoari ekin zion Iñaki Cerrajería, Sara González de Aspuru, garai hartan adierazi bezala, “ludikoa eta aldi berean ironikoa den ekintzan pinturari dagokion hizkuntzaren bidez natura berreskuratu” nahian. Bere oroimenean metatutako esperientzia eta bizipenen bidez, “esentzia, barrukoa, iraunkorra dena” jasotzen ahalegintzen diren atalei bizitza ematen die pintore honek. Aipamen hori 1996an América aretoan egin zuen erakusketaren aurrekoa da. Oso izen adierazgarria eman zion erakusketa hari, La pintura... un instante alegia, artistaren hitzetan bere lanek hauxe aztertzen baitute “pintura, pinturari dagokion gaia den aldetik”, baina “pintura justifikatzeko ez ordea, sortzeko metodo gisa, pintura egiten jarraitzeko baliabide gisa pinturari uko egin eta ezeztatzeko baizik”. Hala, obra handiak, erabat abstraktuak eta edozein erreferentzietatik aldentutakoak aurkeztu zituen Gasteizen eta geroago Madrilgo Pilar Barrio y Valle Quintana galerian. Erakusketa hori dela eta Santiago B. Olmokii nabarmendu duenez “sentsibilitate berri bat sendotu du, abstrakzioan oinarritua, pinturari aurre egiten diona erabateko ikuspegi autokritikoarekin baina aldi berean gozatzeko asmoarekin” abstrakzioa “egiradak duen sentsualtasuna irudikatze gune”bihurtuz.

Obra horietan aldiuneeen igarotze bizkorra deskribatzen zuen, pintura ernearen esentzietatik bertatik sortutako aldiuneeena, argiak eta koloreak duten eraginaren kalitateetan, gainazalen tratamenduan edo irudien jatorrian bertan arreta jartzen duen pinturan. Pintura -bere barne funtzionamendutik bertatik hasita- zalantzan jarri nahi hori eta artistak sorkuntza piktorikoaren aurrean duen jarrera eguneratu nahi hori bere oinarritzko obren ezaugarri dira ondorengo urteetan izan zuen eboluzioan. Bakarkako bere hurrengo erakusketa 1999an egin zuen Donostiako DV aretoan. Azkeneko bi urteetako lana aurkeztu zuen bertan, oso lan bisuala, inolako eduki narratibo edo literariorik ez duena, eta pintatzearen esperientzia, gainazal osoan zehar hartzen duen betetasuna berresten duena.

Bere lanaren beste konstante bat baita koadroaren muga tradizioaletatik kanpo pintura zabaltzen den modu dinamiko, ludiko eta konstruktibo hori. Taller seriean bertan -2000n Bilboko Vanguardia galerian ikusgai jarria- euskarriaren zatiak mozten ditu, eta literalki nahasten ditu aretoan emaitzazko banaketa berri bat eratzeko. Era berean, margotutako gainazal eta argazki zatien konjuntzioak, Economís del deseo (Trayecto, 2004) erakusketan aurkeztutakoak, beste aurrerapauso bat adierazi zuen Cerrajeríren konbinazio-sen horretan, gauzak kontatzeko argazkiak duen ahalmena nabarmendu bazuen ere orduan, bere tailerraren leku jakin batzuk obretan plastikoki txertatzen ziren irudi lausoetan jasoz.

Bete-betea pinturan oinarritutako esperientziak artistari eragiten dion kezka obrei ematen dizkien izenetan ere islatzen da, eginda dauden kolorea zuzenean aipatuz, eta gainera bizitasun handiko zatikatze-prozesu bizkor bati erantzuten dio, baita gainazalean dentsuagoak, ukigarriagoak eta materikoagoak diren eremuen tratamenduari ere, gardenak eta likidoak diren beste batzuei kontrajarrita, olio-pintura eta akrilikoa, edo teknika mistoak nahita erabiltzearen emaitza diren horiei, alegia. Economís del deseo 2007an Gasteizko Montehermoso Kultur Etxean egindako azkeneko erakusketara arte jorratu izan duen lana da. Bertan, ziklo bat itxi du Cerrajería bere pinturretan, 2004-2007 urteko produkzioari dagokionez. Horietan nabaria da kolorearen azterlanak duen garrantzia -tituluek ere pieza bakoitza egituratzen duten elementu kromatikoak aipatzen dituzte-, eta agerikoa da ere bai irudia eratzen duen zentzu espazialaren analisia, esperimendazioan eta etengabe egin eta desagiteko work in progress batean oinarritutakoa, pinturak berak hitz egitea lortu arte.